Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 416

Martxoak 1, 2022

Eraiki dantza taldeak 25. urtez Inudeen eta Artzainen konpartsa antolatu du

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Kaldereroak
5 Inudeak eta Artzainak
6-7 Inauteriak
8 Kirolak: Naroa Garcia
9 Kirolak: Irungo Txirrindulari Elkartea
10 Pablo Moratinos
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak / Irunabar elkarteko bertsoa
13 Beti gazte: Nexas
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka – Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram – Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

11735

25791

50306

1922ko martxoaren 5ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak garaiko albisteak biltzen ditu. Aldizkariaren lehen artikuluan kirol zelai berria eraikitzeko prozesua hasi dela gogoratzen da, eraikuntza lanak gauzatzeko oraindik inor aurkeztu ez bada ere. Jarraian, Arri fraideak inauteri ospakizunek hirian sortu ohi duten giroaz hitz egiten du. Yole "versos románticos" atalean, "¿Me reconoces?" olerkian amodio ezkutu bati zuzentzen zaio. Aldizkariko kolaboratzaile ohikoa den E.R. etorkizunean hirian eraikitzekoa den kirol zelaiak barneratu beharreko kirol modalitate ezberdinak gogoratzen ditu, aniztasun horrek futbolarentzako eta Real Union taldearentzat onurak izango dituelakoan.

Bigarren orrialdean, "Temas deportivos" atalean Real Union taldeak San Mamesen Athletic garaitu zuela gogoratzen da, partiduaren xehetasunak ematearekin batera, talde irundarraren etorkizuneko erronkak errepasatzeko. Aurreko zenbakietan egin bezala, aldizkariaren 340. zenbakian udalak iragarki berri bat ipini du frontoia eta kirol ekipamendu berria eraikitzeko zelaia erosteko. Kirol kronikan berriro Athletic taldearen aurkako partiduaren xehetasun gehiago ematen dira, hurrengo igandean Real Unioneko Vigoko taldearen aurkako partidua jokatuko duela gogorarazi aurretik. Era berean, "futbolerías" atalean estatuko futbol talde ezagunenen azken partiduetako emaitzak errepasatzen dira.

Aldizkariaren azken aurreko orrialdean, berriz, Irungo kasinoan inauterietan egindako maskara dantzaldia nolakoa izan zen kontatzen da. "De todo un poco" atalean, aldiz, kirol zelaiaren eraikuntzak piztutako zalantzak aipatzen dira; Udal talde berriaren osaketa aipatzen da; hirian etxe merkeak eraikitzeko martxan den ikerketaren berri ematen da. Azkenik, "Notas municipales" eta "Noticias" atal aski ezagunekin ixten da "El Bidasoa" aldizkariaren 340. zenbakia.

Argazkiak:

11735: Mozorro dantzaldia Irungo Kasinoan 1949an.

25791: Anakako Etxe Merkeak izenez ezaguna den urbanizazioaren eremuko plazatxoa.

50306: Lapitze auzoan Lorategi Hiria izeneko familia bakarreko etxeak 1933. urtean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Osasun Bidasoa plataformaren mobilizazioak inoiz baino babes handiagoa jaso du

Osasun Bidasoa plataformak mobilizazioa antolatu zuen otsailaren 19an. San Juan plazatik abiatuta eta Kaldereroek inauteriei hasiera eman aurretik, milaka hiritarrek Irungo kaleak hartu zituzten. Mobilizazioan 4.000 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten.

Manifestazioa Colón pasealekua mutur batetik bestera betetzera iritsi zen. Manifestazioari bidea ireki zion pankartak honakoa zioen: "Gure osasunaren alde, SOS kirofanoak. Handitu, berritu, hobetu". Leloak larunbat arratsaldean irun erdialdeko kaleetan bildutakoen kezka eta eskakizunak laburbiltzen zituen. Bidasoarentzako errespetua eskatzen zuen beste pankarta batek jarraitzen zion.

Osasun Bidasoa plataformatik larunbateko manifestazioan parte hartu zuten milaka pertsonen parte-hartzea eskertu dute. "Zorionak eman nahi dizkiegu herritarrei ere, gai honetan parte hartzeagatik", adierazi dute Bidasoa plataformatik. Bidasoa plataformako kideek azaldu dutenez, "herritarrengandik jasotako babes handiak indar handiagoa ematen digu borrokan jarraitzeko, eta zilegitasuna ematen digu Bidasoako Ospitalerako onena lortzeko, hau da, gure eskualdeko osasun publikoarentzat onena lortzeko".

Manifestazioan agertutako herritarren eta erakundeen aldarriaren ondoren, Irungo, Berako, Lesakako, Arantzako, Igantziko eta Etxalarko udalek, eta Hondarribiko talde politiko guztiek -EAJk izan ezik-, publikoki adierazi dute Osasun Bidasoa plataformaren aldarrikapenen alde daudela. Plataformatik exijitu dute Osasun Bidasoaren eskakizunak entzutea eta, batez ere, Bidasoa eskualdeko udalerriak errespeta ditzatela.

Eskualdeari entzuteko eta eskualdea errespetatzeko modu bakarra bloke kirurgikoa berritzeko egungo proiektua geldiaraztea dela azaldu dute, horiek egin bitartean eskualdea ebakuntza gelarik ez uzteko. Osasun Bidasoa plataformatik osasun ordezkariei prestutasuna eskatu diete udal ordezkariekin, osasun langileekin, elkarteekin, gizarte mugimenduekin eta abarrekin hitz egiteko. Azken batean, negoziazio mahai bat abian jartzea eskatzen dute, plataformako ordezkariaren hitzetan "gure eskualdeko eragile guztien esku-hartzeaz gure eskualdeak merezi duen Ospitalea izan dezagun". Izan ere, eskakizun horiek argi geratu ziren otsailaren 19an Irungo kaleetan.

Osasun Bidasoa plataformak otsailaren 26ko eguerdian Donostiako Boulevardean egindako manifestazioarekin bat egin zuen. Izan ere, Bidasoa Ospitaleko arazoek deialdi horretan salatutako lehen mailako arretaren egoera larria eta ospitaleko arretaren gainkargarekin bat egiten dutela ulertuta hartu da erabakia.

Irun.Market plataformak hiriko merkatariei beren produktuak online saltzeko aukera emango die

Irun.Market plataforma Irunen merkatariek beren produktuak online saldu ahal izateko market place-a da. Merkataritzaren sektoreari laguntzeko ekimena da, pandemiaren ondorioei aurre egiteko Irun Aurrera planaren barruan aurreikusitakoa.

Juncal Eizaguirre Hiri Bultzadako ordezkariak azaldu duenez, Market place proiektuak saltoki txikiei interneten presentzia handiagoa izaten lagunduko die, Udalak eta Bidasoa bizirik-ek abian jarri dituzten ekintzei jarraitutasuna emanez. "Helburua tokiko establezimendu horien digitalizazioa da, eta online salmentan aritzeko sarbidea eskaintzea", adierazi du Hiri Bultzadako ordezkariak. Horrela, merkatariek beren jardueran aritzeko aukera ugari izango dituzte aurrean, saltzeko modu berrietara egokitzeko aukeraz gain.
Bidasoa bizirik-en eskutik, Udala market place-a ezartzeko lanean ari da, cbt communication engineering enpresarekin batera, 2021eko azken hiruhilekotik. Prozesua lehen fasean dago orain: Irungo merkataritzaren egoeraren diagnostikoa egiten ari dira, eta sektoreari ekimenaren berri ematen. Orain arte, 600 mezu elektroniko baino gehiago bidali zaizkie Irungo saltokiei. Mezu horietan, proiektuari buruzko lehen datu batzuk emateaz gain, galdetegi bat ere helarazi zaie. Horrela, saltoki bakoitzaren digitalizazio maila ezagutuko da, bai eta sektorearen egoeraren osoko ikuspegia ere. «Horri esker, bertako saltokiak etorkizunean abian jarriko den online salmentako plataformara erakartzeko prestakuntza ekintzak antolatu ahalko ditugu», nabarmendu dute Hiri Bultzada arlotik.

Market place-a irun.market webgunean ezarriko da. Gaur egun, informazio orri bat eta datu gehiago eskuratu nahi duten saltokientzako sarbide bat daude helbide horretan. Online galdetegiaz gainera, enpresa telefonoz deituta eta aurrez aurreko bilerak eginda ere ari da Irungo saltokiekin harremanetan jartzen.

Aldi berean, produktuak saltzeko plataforma digitala diseinatzen ari dira, bai eta bestelako gaiak lantzen ere: saltokien atxikimenduak, prestakuntza, etab. Irungo saltokientzat doakoa izango da plataforman parte hartzea, eta, gainera, market place-an parte hartzen duten saltokientzako diru-laguntza lerro bat aurreikusi da, salmentako plataforma digitalean parte hartzeko beharrezko inbertsioei aurre egiteko.

Plataforma honen bidez, produktuak dendan bertan erosi ahalko dira, 24 orduan entregatu ahalko dira Irunen, Hondarribian eta Hendaian (produktu freskoak barne), eta Estatu osora egin ahalko dira bidalketak.

20 URTE
ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Zartagin kolpeek eta pandereta hotsek inauterien etorreraren berri eman dute

Irungo inauterietan kaldereroak izan ohi dira inauterien hurbiltasuna iragartzen lehenak. Aurten, zartaginak eta panderetak kaxoiaren hondotik atera eta otsailaren 19an hiriko kaleetan astindu zituzten.

Irungo Atsegiñak antolaturik, koloretako jantziekin eta urre koloreko apaingarriekin atondu ziren konpartsako parte-hartzaileak Hungariako doinuak eta kantuak erdialdeko kaleetan zehar zabaltzeko. Kalderero taldeak ohiko ibilbidea burutu duen arren, aurten, ordea, ezin izan dute San Juan plazan ohiko ezkontza ospatu eta, beraz, ez da eszenatoki gainean dantza eta kantu emanaldirik izan. Hala ere, ibilbidean zehar hainbat geldialdi egin ziren kaldereroek abestiak abestu zitzaten. Datorren urtean kaldereroek Irunera itzuli beharko dute, orduan pandemiaren amaierak ohitura guztiak berreskuratzeko aukera emango dielakoan.

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94

HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak
ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12

Eraiki dantza taldeak 25 urte bete ditu Inudeen eta Artzainen konpartsaren antolakuntzan

Eraiki dantza taldeak 25. urtez jarraian Inudeen eta Artzainen konpartsa antolatu du, laz pandemiak eragindako geldialdia kontuan hartu gabe. Artzainek makila eskuan hartuta eta inudeek panpinak goratuz Santiago kaletik abiatu eta Luis Mariano kalearen arteko bidea saltoka egin zuten otsailaren 20an.

Ohi bezala, Zabaltza plazan inude eta artzainen bizitzetako zereginak dantzen bidez irudikatu zituzten dantzariek, aurten, ordea, euripean. Udal Musika Kontserbatorioko Musika Bandaren partaidetzarekin, inudeek haurra udalean erregistratu, apaizaren aurrean bataiatu eta medikuarenera eraman zuten, artzainengatik gorteatuak izan aurretik. Gainera, inauteri aurreko igandean Belle Époqueko ohiturek, jantziek eta pertsonaiek hiri erdialdeko kaleak hartu zituzten Behobiako dantza taldearen eskutik.

Inauteri giroa nagusitu da Irungo kaleetan

Otsaila amaieran inauteri giroak hartu zituen Irungo kaleak. Ostegun Gizenean Zanpantzarrak hiriko kaleak zeharkatu zituen lehen aldiz. Ostiral kaxkarrean Amaia kultur zentroan egindako aurkezpenaren ostean, Inaute Aurrean eta Zaldun Inautean konpartsek irungo kaleetan zehar desfilatu zuten, dantzen, karrozen eta mozorroen prestaketan aurreko hilabeteetan egindako lan guztia erakusteko.

Euskal inauteriek ere beren lekua izan zuten Irunen antolatutako ekintzetan. Larunbatean 15 konpartsa izan ziren eta igandean, berriz 16. Irungo Udaleko kultura arloak azaldu duenez, 1.900 pertsonek parte hartu dute guztira inaute ospakizunetan. Sardinaren ehorzketarekin azken inauteri ospakizunak errauts bihurtu eta datorren urteko inauteriekin berpizteko esperoan geratu ziren.

Naroa García, borrokalaria:

“Nire helburua Espainiako Txapelketatik Irunera berriro urrezko beste bi domina ekartzea izango da”

Argazkia: Estudio Gover

Naroa García borrokalari irundarrak urrezko bi domina lortu zituen aurreko urteko Espainiako Grappling Txapelketan. Aurtengo txapelketan bere helburua lortu du: txapelketan hirugarren aldiz txapeldun izatea. Azkenean saririk irabazi ez arren, aurtengo Kirolaren Galako Irundarron Saria jasotzeko izendatua izan zen bere kirol lorpenengatik. García borrokalariak grapplinga praktikatzea nolakoa den azaldu digu.

Nola sentitu zinen Irungo Kirolaren Sarietarako hautatua izan zinela jakin zenuenean?
Oso pozik nago. Egia esan, ez nuen espero, baina ilusio handiz jaso nuen albistea.

Saria jasotzeko izendatua egoteak berezia izan behar du zu bezalako kirolari batentzat, ezta?
Bai, hori da. Gainera, oraindik gure kirola ez da oso ezaguna eta Irungo beste kirolarien artean senarra eta biok aukeratuak izateak eta gure kirol lorpenak kontuan hartzea oso pozgarria izan da. Nire senarra ere sarietarako hautatuta izan zenez, oraindik bereziagoa izan zen dena.

Hautaketa Espainiako txapelketetan urrezko bi domina irabazi ostean iritsi zaizu. Nolakoak izan ziren txapelketak?
Iazko Espainiako Txapelketan bi modalitate ezberdinetan hartu nuen parte eta bietan lehen postua lortu nuen nire kategorian. Momentu hartan gainera oso txapelketa gutxi egiten ari ziren eta ilusio handiarekin joan ginen Espainiako Txapelketara. Garaipena niretzat aurretik egindako esfortzuarentzako saria izan zen eta poz handia sentitu nuen.

Pandemiak kirol guztiei eragin dienez, zuenean nola egokitu zarete egoera honi aurre egiteko?
Gure kirola guretzat bizimodu bat da. Beraz, pandemiarekin gure egunerokotasuna egun batetik bestera zeharo aldatu zen. Hasieran motibazioa mantentzea kostatu zitzaigun, baina hala ere entrenatzen jarraitu genuen. Etxean konfinatuta egon ginenean ere gure entrenamenduekin jarraitu genuen. Nire senarra eta nire bi semeekin garajera jaisten ginela gogoratzen dut konfinamendua, han gure entrenamenduak egiteko. Gainera, gure beste taldekideekin konektatzen ginen eta uste dut horrek asko lagundu zigula. Dena den, gurea kontaktuko kirola da eta pandemiaren ostean gure entrenamenduak guztiz aldatu ziren.

Zertan ezberdintzen da grappling borroka antzeko beste kiroletatik?
Guk egiten dugunari kontaktuko borroka deitzen zaio eta beste arte martzialetan bezala gure helburua aurkaria lurrera botatzea da. Grappling-ean, batez ere, lurreko borrokan zentratzen gara eta itotzeak edo luxazioak egiten ditugu bertan. Horrela borrokatzen gara aurkariak amore ematen duen arte.

Zein egoeratan dago borrokaren mundua?
Nik uste asko garatzen ari den kirol modalitatea dela. Izan ere, aurreko urteko Espainiako txapelketan kirolari askok parte hartu zuten eta gainera, diziplina ezberdinetako kirolariak elkartu ziren, hau da, judokak, wrestlinga edo Jiu Jitsu brasildarra praktikatzen dutenak. Oso polita izan zen han denak elkartzea.
Zurea bezalako garaipenek kirola ezagutarazi eta jendea erakartzeko balio dute?
Bai, hori espero dut. Dena den, txapelketak alde batera utzita, uste dut klubean antolatzen ditugun beste ekintzengatik gehiago ezagutzen gaituztela. Defentsa pertsonalerako doako ikastaroak antolatzen ditugu edo familientzako ekintza eta eskola bereziak prestatzen ditugu. Guretzat Jiu Jitsua familiako senide guztiontzako kirola da eta niri pertsonalki gustatuko litzaidake neska gehiago hurbiltzea.

Nola moldatzen zara zure entrenamenduak irakasle lanarekin tartekatzeko?
Neuk ere askotan ez dakit nola egiten dudan. Hasteko, ama naiz eta bi seme zoragarri ditut. Gainera, institutu bateko irakaslea naiz eta nire klubean eskolak emateaz gain, klubeko beste gauza asko kudeatzen ditut. Batzuetan zaila izan arren, benetan zerbait egin nahi duzunean hori egiteko modua topatzen duzu. Zorte handia dut nire senarra nire entrenatzailea delako eta berak ere asko laguntzen dit. Gure bi semeek ere kirol berdina egiten dutenez, errazagoa da elkarrekin entrenatzeko tarteak aurkitzea eta familian kirolaz elkarrekin disfrutatzen dugu.

Irakasle lana ere zure kabuz lehiatzea bezain aberasgarria da?
Bai, oso polita da. Gure eskolan txikitan kirolean hasi ziren ikasle asko dauzkagu, beraz, garapen hori hasieratik ikusteko aukera izan dugu. Momentu honetan, txikiei eskolak eman ordez, batez ere, neskentzako defentsa pertsonaleko ikastaroez arduratzen naiz. Bakoitzaren helburuak garrantzitsuak direla uste dut. Izan ere, gurean sasoian egon nahi duen, pisuz jaitsi nahi duen, bere burua defendatzen ikasi nahi duen edo txapelketetan parte hartu nahi duen jendea jasotzen dugu, beraz, helburu guztiei garrantzi bera ematen ahalegintzen gara.

Zeintzuk dira zure hurrengo kirol helburuak?
Asteburu honetan aurtengo Espainiako Txapelketa egingo da Sevillan eta Euskadiko Selekzioaren bitartez gure klubeko beste kirolari batzuekin batera bertan parte hartuko dut. Nire helburua Espainiako Txapelketatik berriro Irunera urrezko beste bi domina ekartzea izango da. Txapelketak aldera batera utzita, orain gure erronkarik handiena gure eskola berriaren proiektua da. Aspaldian hasi ginen proiektu honetan lanean eta, azkenean, aurten gauzatzeko aukera izango dugu. Gure eskola lokal handiago batera mugituko dugu, klase gehiago eskaintzeko aukera izango dugu eta betidanik nahi izan dugun zerbait lortuko dugu, hau da, familiako kide guztiei elkarrekin kirola praktikatzeko aukera eskaintzea.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Irungo Txirrindulari Elkartea denboraldiko txapelketak antolatzeko eta lehiatzeko prest dago

Irungo Txirrindulari Elkartea denboraldiko txirrindularitza txapelketak antolatzeko eta lehiatzeko prest dago. Otsailaren 18an denboraldiko aurkezpena egin zuen klubak Iñigo Lavado jatetxean, haur, kimu, kadete eta junior mailako txirrindulariak ezagutaraziz. Edurne Izagirre klubeko lehendakari karguan estreinatu zen. Presidente berriak uste du txapelketa gutxiko bi urteren ostean, txirrindularitza elkarte irundarrak aurten ohiko lehiaketa guztietan parte hartzeko aukera izango duela.

Pandemiak kirolari guztien jarduera baldintzatu du. Nola eragin dizue zuei?
Bai, hala da. Orain dela bi urte konfinamenduaren ostean hainbat hilabetez apur bat entrenatzeko aukera izan genuen, baina oso lasterketa gutxi izan genituen. Junior kategoriakoek denboraldiaren zati bat berreskuratzeko aukera izan zuten, gainontzeko kategorietan, hau da, haurretan, kadeteetan eta kimuetan txapelketarik izan ez zen bitartean. Pandemia hasi osteko bigarren urtean kadeteek eta juniorrek txapelketetan parte hartzeko aukera izan zuten, txikienek oraindik lehiatzeko aukerarik ez zutelarik. Beraz, klubeko haurrek bi urte eman dituzte txapelketetan parte hartu gabe, ez baitira antolatu. Aurtengo denboraldirako aldiz, dena prest dagoela dirudi eta txapelketetara itzuli ahalko direla.

Txikien maila igoera guztiz baldintzatuko du egoera horrek?
Bai, asko. Kontuan izan behar dugu aurten kadeteetan ibiliko direnak kimu kategorian egondako urteetan ez dutela lehiatzeko aukerarik izan. Txirrindularitzan oso garrantzitsua izaten da maila guztietatik igarotzea, kirol maila pixkanaka zailtzen doa eta. Apurka-apurka pelotoi handiagoetan lehiatzen dira, gertuago doaz eta teknika gehiago behar dute. Kategorietan gora egin ahala lasterketak luzeagoak dira. Haurrak eta kimuak zirkuitu itxietan lehiatu ohi dira, baina kimuak, aldiz, irteera eta helmuga artean mendiak igotzen hasten dira, beraz, oso aldaketa handia da.

Entrenatzaileentzat ere zaila izan da prestaketa kudeatzea, gazteek lehiatzeko aukerarik izan gabe, ezta?
Bai, argi dago gazte askoren helburua txapelketak direla. Ez soilik podiumera igotzeagatik, hori guztioi gustatzen zaigula argi dago, baina txapelketak ere norberarentzat erronkak dira eta bakoitzak dauzkan helburuak lortu ahal izateko aukera dira. Txapelketarik ez egiteko entrenatzeak frustrazio handia eragiten du eta asko nabaritu dugu. Kirolari askok ez zuten entrenatzeko beharra ulertzen lehiaketarik gabe.

Aurtengo denboraldirako aldiz, zenbait txapelketa prestatzen ari zarete?
Hori da. Asteburu honetan kategoria ezberdinetako txapelketak hasiko dira. Guk haur eta kimu kategorietako bi lasterketa antolatuko ditugu Irunen. Gainera, aurten bi lasterketa horiek Irun erdialdean egingo dira, Colón pasealekuan, orain arte horietako bat Letxunborro hiribidean egiten zen bitartean. Orain, aldiz, udalak antolatutako Igandero jardunaldietan sartuko dira. Bestetik, San Pedro lasterketa daukagu, iaz azkenean ospatu ez zena. Aurten ilusio handiz berriro prestaketa ekintzei ekingo diegu. Ekainean ere Juanma Garate martxa antolatzen da, ekainaren 12an izango da eta hori prestatzeko ere buru-belarri ibiliko gara lanean. Gainera, aurten nobedade bat izango dugu, izan ere, Juanma Txiki antolatuko dugu BAT taldearekin batera, duatloi moduko zerbait izango da eta dena prestatzeko elkarlanean ari gara bi klubak.

Uste duzu ohiko txapelketen egutegia berreskuratzeak klubera jendea erakartzen lagunduko duela?
Bai, haur eta kimuen lasterketak Irun erdira eramatearen helburuetako bat kirola ikustarazten laguntzea da. Guztiok ezagutzen eta jarraitzen dugu txirrindularitza, Tourrarengatik, Giroarengatik, Vueltarengatik eta abar. Badirudi horrelako lasterketak urrutiegi gelditzen zaizkigula, baina Euskal Herrian txirrindularitzarekiko afizio handia dago. Egia esan, gehiengoak etxetik ekartzen dute txirrindularitzarekiko zaletasuna, baina poliki-poliki kirola zabaltzen joan nahi dugu.

Klubean ere neska txirrindulariak dauzkazue. Zailagoa da kirola neskengana hurbiltzea?
Bai, orokorrean txirrindularitzara asko kostatzen da. Horregatik, bai klubaren zein federazio ezberdinen artean lan handia egiten ari gara. Esango nuke orokorrean kirol guztietan gertatzen den zerbait dela eta, horretarako, txirrindularitzan ere emakumeak daudela erakustea oso garrantzitsua iruditzen zait. Luzerako lana izan behar du eta horretan ari gara. Oso harro gaude denboraldi honetan klubean dauzkagun bi emakume kimuak Euskal selekzioarekin joan direlako Espainiako txapelketara eta sekulako lana egin dute. Pistan ere oso ondo ibiliak dira Donostian erakutsi zan dutenez eta oso pozik gaude. Uste dut bi neska gazte hauek egiten ari diren lana beste emakumeei erakutsiz txirrindularitzara neska gehiago erakartzea lortu daitekeela. Entrenamenduak berdinak dira neska zein mutilentzat eta elkarren artean oso giro ona daukate.

Beraz, erreferenteak zeregin honetan garrantzitsuak izango dira?
Hala da. Uste dut baliabide ezberdinak erabili behar direla horretarako. Nik neuk emakume bezala txirrindularitza jarraitu dut, baina orain arte ez dut kirol honetan ibiltzen den emakumerik ezagutu. Ordea, txikitatik ikusitako gizonezko txirrindulari asko aipatu nitzake. Lan hori ez du soilik prentsak egin behar, denon artean egiten dugun zerbait izan behar du eta ziur noizbait helburua lortuko dugula.

Ardura handia da Irungo Txirrindulari Klubeko lehen lehendakari emakumezkoa izatea?
Ni kargu honetan egoteak zerbaitetarako lagundu badezake oso pozik egongo naiz. Azkenean, guztiok horrelako zeregin bat betetzeko gaitasun berdinak dauzkagula uste dut, berdin du emakumea edo gizona zaren. Egia esan, ni oso gustura nago karguan, zuzendaritza batzordean lan handia egiten ari gara. Orain lehendakaria izatera pasa naiz, baina aurretik lehendakariorde izana naiz eta zikloa lehendakari lanean amaituko dut. Egia da askotan niri egokituko zaidala aurpegia ematea, baina egin beharreko lana arduradunen artean banatua dago. Lan asko egiteko dagoen arren, egiten dugunaz disfrutatzen dugu. Ni kasualitatez iritsi nintzen klubera, semea txirrindularitzan hasi zelako eta dagoeneko semea klubean ez badago ere, nik oraindik hemen jarraitzen dut. Egia esan, asko disfrutatzen dut eta pentsatzen dut daukadan taldearekin urrutira iritsiko garela.

HAMAIKA
- Erreforma integralak
- Diseinua eta interiorismoa
- Altzariak eta ekipamendua
San Markos Plaza 1, Hondarribia + 34 943 64 64 12 www.hamaika.com

Pablo Moratinosek bere marketin ezagutzak liburu batean partekatuko ditu

Argazkia: Estudio Gover

Martxoaren 24an kaleratuko da Pablo Moratinosek idatzitako "Negocios online. Data driven marteking" izeneko liburua. Argitalpenean interneten negozioak abiatzeko kontuan izan beharreko marketin aholkuak azaltzen ditu marketin aholkulari irundarrak. Liburua dagoeneko hainbat plataforma eta dendetan erreserbatu badaiteke ere, Pablo Moratinosek azaldu du jendeak irakurri eta iritziak partekatzen hasteko desiratzen dagoela.

Nola sortu zen online negozioen sorkuntzari buruzko liburu bat argitaratzeko aukera?
Egia esan, ez zen izan nire ideia. Ideia argitaletxeak izan zuen eta beraiek jarri ziren nirekin harremanetan. Haien asmoa marketinari buruzko liburu bat egitea zen, baina datuen analisiaren ikuspegitik. Gai horri buruzko liburu bat idatzi nahi ote nuen esan zidaten, eta baietz esan nien, noski. Nolabaiteko askatasuna eman zidaten neronek eman nahi nion ikuspegia aukeratzeko. Gogoeta bat egin nuen eta honetan datza: gaur egun marketinaren mundua oso eskuragarria da mota guztietako marka edo pertsonentzat. Gertatzen dena da mundu guztiak badakiela Facebooken enpresa orri bat sortzen edo publizitate kanpaina txiki bat ere egiten, baina oso jende gutxik daki salmenta kopurutik harago kanpaina horren emaitzak aztertzen, hau da, emaitzak optimizatzen. Liburua horretara bideratuta dago, marketin lana egiten hasi nahi duen jendearentzat, baina ez daki nola egin behar duen gero eta emaitza eraginkorragoak lortzeko, diru gutxiago gastatzeko eta etekin hobea ateratzeko.

Liburua era askotariko jendearentzat erabilgarria izan daiteke?
Oso zabala da. Egia esan, Interneten negozio bat duen eta egoera hobetu nahi duen edozein pertsonarentzat, diru gehiago irabazi nahi dutenentzat, bezero kopurua handitu nahi dutenentzat, bezeroaren leialtasuna irabazi nahi dutenentzat edo jendeak maizago erostea nahi dutenentzat liburuak hori lortzen lagunduko die. Bada zati garrantzitsu bat ere, hau da, liburua ez dago bakarrik dagoeneko Interneten funtzionatzen ari den batentzat pentsatuta. Liburua Interneten negozio bat izatea gustatuko litzaiokeen eta ideiak nondik har ditzakeen ez dakien jendearengan pentsatuz ere sortu da. Liburuaren hasieran azaltzen da nola hasi ideiak sortzen, batez ere funtziona dezaketenak edo jendearen aldetik interes potentziala izan dezaketenak.

Erraza izan zaizu marketinaren kontzeptuak gaian hasiberriak diren horientzat sinplifikatzea?
Egia esan, erraza da, edozein negozio ideiaren etapa klasikoek gidatzen baitute liburua. Ideiaren sorrera azaltzen den zatian, inork ez daki ezer negozioen sorkuntzari buruz edo marketinari buruz. Orduan, kontzeptu berri horiek guztiak behar bezala azaltzen dira, eta horrek errazagoa egiten du liburuan azaltzen den guztia barneratzea.

Zehazki, zer marketin estrategia azaldu dituzu liburuan?
Egia esan, marketin estrategia orokorrenak islatzen saiatu naiz. Batez ere ideia sortzeko eta aztertzeko faseak landu ditugu, ideiak garatzeko aukerarik ba ote duen jakiteko. Gero, aurremerkaturatze fasea prestatzen ere eman dugu denbora pixka bat, eta oraindik garatu gabe dagoen ideia potentziala jendeari ezagutarazteko modua erakutsi dugu. Ondoren, merkaturatze fasean sartzen gara, non ideia optimizatzen dugun eta jendeak ezagutzen gaituen arren, oraindik ez digun erosten. Azkenik, bezeroaren fidelizazioaren atalean, jendeak behin baino gehiagotan eros diezagun edo bere kontaktuei gure lana gomendatu diezaien lortzen saiatzen gara. Hori guztia gaur egun oso ezaguna den Lean metodologiaren bitartez egin dugu, hau da, negozio bat modu ekonomikoan abiaraztera eta probatzera bideratutako metodologiarekin.

"Gaur egun marketinaren mundua oso eskuragarria da mota guztietako marka edo pertsonentzat"

Teoria azaltzeaz gain, ikasitakoak praktikan jartzen erakustea garrantzitsua da?
Bai. Bada liburuaren zati bat, hasieran asko kezkatzen ninduena; izan ere, dena oso azkar aldatzen da, eta, beraz, baliteke liburuan argitaratzen diren gauzak edo irudiak erabilgarriak ez izatea oso denbora laburrean. Horregatik, oso interesgarria iruditzen zait liburuaren erosle guztiei eskaini diegun aukera; izan ere, webgune espezifiko bat sortu dut liburuaren informazioa osatzeko. Webgune horretan etengabe eguneratzen ari naiz eduki guztia, zaharkituta gera ez dadin. Horrela, liburuan teoriaren zati handi bat azaltzen da, baina exekuzioa webgunean azaltzen da, deskargatu daitezkeen bideo edo txantiloien bidez.

Liburuan garrantzi handia ematen diozu datuak zuzen interpretatzeari, ezta?
Hori da gakoa. Mundu guztiak Big Data edo datu-bolumen handi batekin lan egitea gutxi gorabeherako ideia bat duen une batean gaude, baina datu horiek interpretaziorik gabe jasotzeak ez du ezertarako balio. Prozesuaren zati garrantzitsuena da horiek aztertzea eta, horien bidez, hobetzeko ideiak aukeratzea edo bezeroek gure produktuekin edo zerbitzuekin dituzten tirabirak murriztea. Liburuak oso zati garrantzitsua du, ezagutu eta kontrolatu behar ditugun metrika guztiak deskribatzen ditu, eta horiek aztertzen irakasten digu, kontrol egokia izan dezagun.

Marketinean dena azkarregi aldatze da?
Hala da. Dena den, marketinaren oinarrizko printzipioak orain dela 50 urteko berdinak dira. Egia esan, asko aldatzen ari dena tresnak dira, eta orain joera batzuk ikusten ari gara; horien bidez, lehendik ere erabili izan diren teknikak erabiltzen ari gara berriro. Gaur egun asko hitz egiten da Growth Hacking-ari buruz eta bere teknikak antzinako estrategietan oinarrituta daude.

Lehen liburu honen ondoren, edukian gehiago sakontzen duen beste liburu bat argitaratzea gustatuko litzaizuke?
Egia esan, liburu bat idaztearen esperientzia oso polita da. Gozamena izan da Anaya Multimediaren taldea bezalako jende profesionalaz idaztea. Hori bai, ezagutzaren hustuketa oso handia da, eta, beraz, nik uste nuena baino ariketa gogorragoa da. Asko gustatu zait neure buruari kontzeptuak finkatzeko balio izana. Ziur aski, etorkizunean, guzti honetatik errekuperatzen naizenean, agian bigarren zati bat edo zerbait aurreratuagoa idaztea planteatuko diot nire buruari.

EGUZKITZA GELA EGONKORRA

Gure Gela Egonkorreko ikasleek udazkenean egindako lana, batetik margotu bestetik moztu eta kalera irten ziren hosto bila, lan polita gelditu zitzaien, ezta?

Denbora-pasak

7 hitz: Emakumeen Nazioarteko Eguna

V	P	N	A	Z	I	O	A	R	T	E	K	O	E
E	J	P	S	A	P	K	J	J	Q	J	X	L	B
T	C	B	G	A	D	G	I	G	K	W	B	D	E
W	Z	O	R	T	Z	I	P	U	K	P	B	Y	R
G	E	C	M	H	A	H	F	E	G	U	N	A	D
A	T	W	M	Q	F	P	M	B	Z	W	F	X	I
U	S	H	A	E	M	A	K	U	M	E	I	V	N
C	W	V	R	Y	J	J	P	T	S	A	R	K	T
H	C	E	T	U	R	I	A	J	A	D	Y	R	A
O	F	P	X	W	H	D	H	T	K	G	H	I	S
E	Z	S	O	A	Q	T	C	U	W	X	L	I	U
Q	P	D	A	Y	R	R	V	E	U	F	F	N	N
X	E	S	K	U	B	I	D	E	A	K	X	K	A
A	Y	H	H	V	Z	W	N	M	B	Y	Q	H	S

Martxoa, zortzi, berdintasuna, eskubideak, emakume, nazioarteko, eguna.

				8		2		
	5	8	2	6	9			
1	7		5			9		
7			8					
		6				1	9	
9		5						
8			9			6	1	
6	9	1		5	8			
				4		7	8	

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

BIKOTE HARREMANARI

DOINUA: Haizea dator ifarraldetik

Egilea: Jon Luzuriaga Iurramendi

1
Bikote ginen jaio aurretik
hori gure iragana,
hala izaten jarraitzen dugu
eta ez bat erdibana;
arintasuna izan da sarri
beste batzuetan zama,
norberarenak ditugu noski
izena eta izana.
Sentimenduei hitzak jartzea
zaila izan ohi den lana,
esango dudan moduan bizi
dut bikote harremana.

2
Iraganaren gazi-gozoak,
ziur naiz etorkizuna,
amaren sabel eta bularra,
sehaskako maitasuna,
ume ginela jolas-borrokak,
gelako iluntsuna,
barre algarak, momentu latzek
daukaten isiltasuna,
zorionaren aparra eta
minaren gordintasuna,
ezin zenbatu zenbat izan den
elkarbanatu duguna.

3
Azaltzen zaila izan daiteken
konexioren bat bada:
gertutasuna transmititzen dit
nahiz egon distantziara,
inoiz herrenka nabilenean
nire makulu bera da,
airean hegan hasi denean
gonbidatu nau bertara,
baztertzen ere badaki ondo
nahiz inoiz ez egin traba;
uztarri bera erabiltzeko
jaioak izan al gara?

4
Ahaztu egin zait komentatzea
bikitako bat naizena;
bada mito bat bai ezaguna
laranja erdiarena,
nahiz horrelako gauzetarako
sarri falta sinesmena
bada ezpada aipatuko dut
ea betetzen den dena:
munduratzeko aukeraren bat
izango banu hurrena,
berbera nahiko nuke izatea
ondoan jaioko dena.

ELATZETA LH4

ELATZETA ESKOLAN 2.URTEZ JARRAIAN ***TXITOAK*** JAIO DIRA.

Oilotegia apaintzea izango dugu helburu.

20/21.ikasturtean 1.zikloko ikasleek, urriaren erdialdera, inkubadora batean arrautzak jarri zituzten. 21 egunez zaintzen ibili ziren, eta prozesu guztia txukun burutu zutenez 3 txito jaio ziren.

Orain, abenduan gaudela, 2.ziklokoei txito horien etxetxoa (oilotegia) eta ingurua atontzea dagokigu. 3. mailakoekin batera, eginbeharrekoak banatu ditugu(ura edatekoa eta janaria ematekoa fabrikatu, oheak kokatu eta laztoz bete, itxiturak konpondu, txitoek jolasteko eremua osatu ...) eta gabonetako oporrak baino lehen dena prest izango dugu txitoak bere oilotegian kokatzeko. Oilotegia prestatzen dugun bitartean, txitoak indarra hartzen ari dira; eta, ikasle zein irakasleen etxeetan pasatzen dute gaua. Txitoak gero eta handiagoak daude, BAIETZ ETXE ELEGANTE BAT ESKEIN!!!!

GORA ELATZETA ESKOLA!!!
ELATZETA ESKOLAKO 4.maila

Angel Bermejo, Nexas raperoa:

"Gehien gustatzen zaidana da rapean nahi duzuna esan dezakezula"

Angel Bermejo Nexas izenez ezagunagoa da raparen munduan. Orain dela aspaldi hasi zuen bere ibilbidea musikaren munduan, baina prest dauka 2022an zehar partekatuko den eduki berri asko. Abestiak "NexasEstaMuerto" Youtube kanalean partekatzen ditu. Rap kantariak azaldu duenez datozen hilabeteetan bi disko kaleratzeko asmoa du, lehena Jetlag izenekoa.

Nola hasi zinen raparen munduan?
Gustuko nuen musika entzuten sartu nintzen raparen munduan, hau da, momentuan gehien gustatzen zitzaizkidan artistak entzunez. Apurka-apurka rap batailetan parte hartzen hasi nintzen Acto Messie, Aigor edo hemen inguruko raperoekin, izan ere, beti asko lagundu izan digute inguruko rapero hasiberriei. Gure lokaletik pasatzen ziren eta, horrela, errima batzuk egiten hasi ginen. Konturatu gabe sartu ginen mundutxoan eta orain ezin gara handik atera.

Zerk erakarri zintuen gehien rapetik?
Gehien gustatzen zaidana da rapean nahi duzuna esan dezakezula eta inork ez duela esango zuk diozuna. Barnetik daramazuna husteko modu bat da, eta dituzun arazoak mundu osoari kontatzeko modu erraza. Jendea entretenitzeko ere balio dezakeela uste dut.

Zertan inspiratzen zara zure sorkuntzetarako?
Printzipioz ez dut inspirazio iturri zehatzik. Nahi dudana da oinarri guztiak ekoizleenak izatea. Adibidez, 7 AMko Acto Messierekin lan egin izan dut edo Denisen Viassérekin. Haiek oinarri bat pasatzen didate, nik erritmoa hartzen dut, eta orduan hasten naiz pentsatzen ea gustatzen zaidan, ondo gera daitezkeen esaldiekin osatzen saiatzeko. Horrela hasten naiz nire abestiak sortzen.

Zeintzuk dira orain arte argitaratutako lanak?
Orain arte, kanalean singleak eta abesti batzuk baino ez ditut argitaratu. Musika alde batera utzi nuen aldi batez, ikasten hasi eta ez bainuen astirik hainbeste gauza egiteko. Berrogeialdia eta gero lana aurkitu ondoren, rapera itzultzea erabaki nuen, benetan gustatzen zaidan zerbait dela konturatu bainaiz. Orain, 6 kantu dituen Jetlag izeneko disko bat aterako dugu. Udan 4 kantu bilduko dituen beste disko bat aterako dugu, reggaeton motako abesti mugituagoak eta erritmo itsaskorragoekin, dantzagarriagoekin.

Proiektu horiek guztiek denbora behar dute?
Hori da. Batez ere kontuan izanda, nahiz eta jende askok zalantzan jarri, rapero gehienok musika munduaz gain beste lan bat dugula. Beraz, musika lanetik irtetean egiten dugu, eta horrek zailtasun gehigarri bat dakar, eta borrokatu egin behar da.

Kanpoko laguntza ere beharrezkoa da musika egiteko?
Bai, ezinezkoa da hori guztia egitea zure inguruan lagunduko dizun pertsona talderik ez baduzu. Nik laguntza daukat oinarriak egin diezazkidaten eta bideoak prestatzeko laguntza ere badut. Gainera, ideiak ematen dizkidaten edo erabakiak hartzen laguntzen didaten jende askok inguratzen nau. Azkenean, jende horren guztiaren laguntzak eragina izaten du proiektuan eta nik sortutako musikan.

Erraza da ezagunak egingo diren kantuak sortzea?
Ez, zaila da. Horretarako, ezinbestekoa da kanta ona izatea, bestela ezinezkoa da jendeari gustatzea eta entzuleak erakartzea. Gainera, ez dugu ahaztu behar Irunen gaudela eta zure lagunengana, ezagunengana eta, asko jota, zeharkako kontaktuengana iritsiko zarela. Abesti itsaskorra ez bada, ezinezkoa da urrutiago eramatea.

Nola erreakzionatu du jendeak orain arte partekatutako abestiekin?
Orain arte kanalean nituen abestiak aspaldikoak ziren, eta ez dago jakiterik zer harrera izango duten argitaratuko diren hurrengoek. Orain igo dugun lehen abesti berriari jendeak harrera ona egin dio. Denbora askoren ostean argitaratzen den lehen abestia denez ezberdina da, horrek jendea aktiboago egotea eraginen baitu. Orain uste dut maketarekin jendea pixka bat gehiago suspertuko dela, eta udan prest dugun guztia ateratzen dugunean jendea guztiz animatuta izango dugula.

Zein dira diskoak argitaratzeko pentsatutako epeak?
Hurrengo diskoa hilabete batean edo bitan ateratzea gustatuko litzaiguke, baina epeekin arazoak izaten ari gara eta argitalpena apur bat trabatzen ari zaigu. Hurrengo diskoko guztia grabatuta dago, aspaldi egin nituen abesti zaharrak baitira. Abesti horiek berreskuratu ditut eta forma eman diet disko honetan sartu ahal izateko. Horren ostean argitaratuko litzatekeen diskotik masterra bakarrik falta zaigu, beraz, udararako garaiz iristea espero dugu.

Kantuen arrakastarako garrantzitsua al da hedapen lana?
Abesti berriak atera ondoren, hor ibiltzen gara ea kontzerturen bat lortzen dugun. Rap guduak ere asko gustatzen zaizkit eta hemendik aurrera gehiagotan parte hartzen saiatuko naiz. Guduetan aukera duzu zure abestiak edo errimak abesteko eta jendeari gustatzen zaizkion ikusteko beste aukera on bat dira, zure lana erakusten duzulako. Guduetan, jendearekiko kontaktua oso hurbila da; izan ere, zirkulu batean inguratuta zaude, eta zuzenean egiazta dezakezu jendeari iritsi zaion ala ez. Egin duzuna gustatuz gero, jendeak interesa izango du zure izena eta zure sorkuntzen inguruan gehiago jakiteko.

Etorkizunera begira musikatik bizitzea posible ikusten duzu?
Orain lan on bat aurkitu dut eta egoera egonkor batean nago, nire bizitzako zerbait delako eta gustatzen zaidalako. Hori dela eta, inolako presiorik gabe egin dezaket rapa, abestiak etengabe eginez eta etorri behar duena etor dadila.

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

Bidasoa Formación
- HIZKUNTZAK (Ingelesa, frantsesa, euskara)
- ESKOLA LAGUNTZA
Talde txikiak eta banakako klaseak
Matrikula doan
Eliza Kalea 4 IRUN (San Juan plazan) 688 889 547 - info@bidasoaformacion.es

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

SEXperience

Konekta eta Asexora-T zerbitzuek, sexualitatea aztertzeko gune berri bat antolatu dute. Ekintza martxoaren 11n egingo da arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara. Horretarako, Irungo hiru artista lokalen lanak erakutsiko dira: Enara Iruretagoiena (@enarairu), Cristina Juaniz (@micrisantemo) eta la chica del coño (@yosoylachicadelco). Era berean, hainbat sexu jostailu eta liburu interesgarriak eskainiko dira. Besteak beste, sexualitate librea, lotsarik gabea, osasungarria eta errespetuzkoa sustatuko dute. Ekintza Irungo Ospital Zaharraren parean izango da, Aia Tabernaren ondoan. +18.

Anima zaitez!

Giza Eskubideen Zinemaldiako Gazte Epaimahaia

Gazte Epaimahaiak aukeratuko du Nazioarteko Film Laburren Lehiaketaren irabazlea.

Gazte Epaimahaia izan nahi duzu?

- 18 -30 urte artean izan beharko dituzu

- Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitateko eta Ikus-entzunezko graduko Mondragon Unibertsitateko ikasleek ECTS kredituak izango dituzte.

Izen emateko epea: 2022ko martxoaren 7an amaitzen da.

Etikasi 2022

Etikasi Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza-proiektu bat da. Giza duintasunaren giza sustraian oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua dagoena, enpatiaren aldeko hautua eginez.

18 eta 30 urte bitarteko EAEko Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko graduko ikasleek izango dute parte hartzeko aukera.

Interesdunek izen-emate fitxa bidaltzeko epea martxoaren 13ra arte izango dute.

EuskarAbentura 2022

EuskarAbentura Espedizioa 2022, proiektu honen laugarren edizioa izango da. Ekimena 130 gaztek osatutako espedizioa da eta 2022ko uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko du.

EuskarAbentura Espedizioa 2022 ekintzan parte hartzeko hurrengo baldintzak bete behar dira:

• 2005 edo 2006 urteetan jaioa/sortua izan

• Euskaraz jakin

Hautagaitza aurkezteko www.euskarabentura.eus webgunean aurkituko duzuen formularioan gaztearen eta tutore/gurasoen datuak bete eta bi dokumentu bidali beharko dira: aurkezpen bideo bat eta proiektu bat.

Izena emateko epea: martxoaren 4ra arte.

Konekta Labs 2022 jardunaldiak

Konekta Labs 2022ko jardunaldiak martxoaren 4an eta 5ean izango dira, Palmera Monteron (2. aretoan).

Ostiraleko saioa 17:30etatik 19:30etara izango da, eta larunbatekoa 11:30etatik 14:00etara. Ordutegi horiek orientatiboak dira, izan ere, hizlari kopuruaren arabera saioa luzatu edo laburtu egin daiteke.

Saio horietan, titulazio desberdinetako zenbait gazte elkartuko dira ikasketei buruz dituzten esperientziak kontatzeko. Titulazio horietako batzuk dira haur hezkuntza, kimika, erizaintza, antropologia, lehen hezkuntza, gizarte lana, jarduera fisikoa eta kirola, nekazaritza, nazioarteko harremanak eta zientzia politikoak...

Jardunaldietan, beste hainbat gairen artean gisa honetako gaiak landuko dira: ikasketei buruzko erabakia, helburuak eta itxaropenak, ikastetxe aukeraketa eta ziklo aldaketa.

Formatu honen bidez, esperientziak lehen pertsonan eskaini nahi dira, aurrez aurreko elkarrizketen bidez, etapa berriaren norabidea aukeratu behar duten pertsonen gidari, inspirazio eta motibazio izan daitezen.

Jardunaldi hauek ikasketa berriak hasteko etapan dauden pertsonei zuzenduta daude, bai erdi edo goi mailako LHn, bai unibertsitateko graduren batean.

Jardunaldiak irekiak dira eta edonor da ongietorria. Halaber, hurbileko zentroetan ikasteko dauden aukerei buruzko informazioa emango da, ikastetxe horien liburuxken bidez.

Lehen sorospen ikastaroa Irunen

Non: Plaiaundi institutuan, aurrez aurreko modalitatean eta gaztelaniaz.

Ikastaroaren datak: Martxoaren 22tik apirilaren 1era, arratsaldeko 15:30etatik 18:00etara.

Ikastaroaren iraupena: 20 ordu.

Talde hartzailea: Langabeak, 15 plaza guztira.

Ikastaroa doakoa da!



Martxoak

2, 7 eta 9an

Haurrak parkean

Zer: Parkeetan eta kalean euskararen erabilera areagotzeko jolasak antolatuko dira hiriko parkeetan.

Non: Olaketa kaleko Partxis parkean eta Santiago kalean.

Ordutegia: 17:00etatik 18:00etara Zabu Zibu jolasa 3-5 urteko haurrentzat eta 18:00etatik 19:00etara 6-9 urte arteko haurrentzat Txirrintxon jolasa.

Prezioa: Doakoa eta izen ematerik gabe.

5

Kontzertua

Zer: "Emakume okerrak" kontzertua XX eta XXI mendean "zuzendu gabeak" izan ziren emakumezko artista ezagun eta aparta batzuen omenaldia da.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 8 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

6

Ricardo Requejo Ganbera Zikloa

Zer: Tomás Rutik, Maider Aizpuruak, Ane Aguirrek, Iratxe Paredesek eta Iñaki Gezalak osatzen dute Larrea boskotea. Kontzertu honetan Valentín Larrea konpositorearen obra berreskuratzen da.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

6ra arte

Erakusketa

Zer: Irungo inauterietako kartelen erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

Sarrera: Doan

12

Dantza

Zer: Zer egin ezer sentitzen ez duzunean? Ideia hori abiapuntutzat hartuta, Iker Karrera euskal koreografoak No Pleasure sortu du, bere pieza berria.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 8 euro.

Sarrera: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

13

Kontzertua

Zer: Oskarbi talde beteranoak eta IGA abesbatza gazteak berariazko kontzertu bat eskainiko dute.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak



4	6	9	1	8	7	2	5	3
3	5	8	2	6	9	4	7	1
1	7	2	5	3	4	9	6	8
7	1	4	8	9	2	5	3	6
2	8	6	3	7	5	1	9	4
9	3	5	4	1	6	8	2	7
8	4	7	9	2	3	6	1	5
6	9	1	7	5	8	3	4	2
5	2	3	6	4	1	7	8	9

Jaunartzeak 2022

ERREPORTAJEA+ ALBUMA

165€ -tik aurrera

Argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
info@fotogover.com
www.fotogover.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GOVER™